# KOSTUEN EGITURA

Badakigu enpresa edo proiektu bat aurrera eramateko hainbat gastu daudela, baina guk dena dohainik izatea erabaki dugu. Hala nola, laguntzak ezberdinak izango ditugu kostuak asetzeko. Logikoa da enpresa guztiek **kostuak murriztu** nahi dituztela, horretarako **low cost** izeneko modua dago, prezio lehiakorrak lortu ahal dituztelako, adibidez gure enpresa.

Gure zerbitzuak **kostu finkoak** ditu, ekoiztutako produktu edo zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez direnak ditugulako, adibidez, soldatak eta alokairuak. Administrazio publikoak psikologoen soldatak ordaindu beharko ditu, baita gure soldatak ere, izan ere, gure zerbitzuak publikoa izan behar duela uste dugu (gizarte guztiaren ongizatea bermatzen duelako). Hala ere, soldaten kantitate bat gure enpresak ordaindu beharko duela ere uste dugu.

Beste alde batetik, **kostu aldakorrak** ditugu; ekoiztutako produktu edo zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen direlako, hala nola, lehengaiak, energia eta garraioa. Gurean, programazioa, influenzerrak ordaintzea eta ordenagailu edo ekipo teknikoen mantenimendua izango dira kasu honetan, eskaintzaren arabera gehiago erabiliko ditugulako.

Bi negozio-eredu mota daudela kontuan hartuz, gurea esan dezakegu; **balioan oinarritutako negozio-eredua** dela, enpresen interes handiena ez delako kostuak minimizatzea, baizik eta **bezeroari eskaintzeko balioa sortzea** (beren produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.).

Hona hemen behean gure kostu orokorren eskema, gutxi gorabehera:

| **KOSTUA** | **ZER** | **HILEAN** | **URTEAN** |
|---|---|---|---|
| Ordenagailuak psikologoentzatet eta guretzat (telelana egiteko). Telefono pare bat eta haien tarifa. | Ordenagailu bakoitzak 600€<br>Telefonoak 140€<br>Hauek urte batean finantzatuak izango dira.<br><br>Mugikorra eta internet tarifa, Euskaltelekin, 24,9€ hilean. | 61,6€<br><br>24,9€ | 740€<br><br>298,8€ |
| Kamiseta | Kamiseta bakoitzak 6€ kostatuko | 600€ | 7.200€ |

| | | | |
|---|---|---|---|
| bakoitza ekoiztea | digu. (100 kamiseta hasierako hileetan) | | |
| Marketing gastuak | Influenzerrak, aplikazioaren diseinua, aplikazioaren mantenimendua, sare sozialen kudeaketa ... | 50€ | 600€ |
| Langile guztientzako soldatak (psikologoak) | Zati bat administrazio publikoak ordainduko, beste bat, guk.<br><br>Soldatak gure enpresari dagozkigunak: 2.000€ | 2.000€ | 24.000€ |
| **GUZTIRA** | | 2.736,5€ | 32.838€ |